

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Bati baino gehiagori gertatuko zitzaion etxeko giltzak erabili, nonbaiten utzi eta urrena behar dituenean non utzi zituen ez gogoratzea. Edo besterik gabe ustez utzi zituen tokian ez egotea, eta ondorioz bilaketa batean hasi beharra izatea bere denbora alferrik galduz, kasu batean baino gehiagotan estres puntu batera iritsi ondoren.

Arazo honi aurre egiteko eta kasu hauek ekidin ahal izateko edozein giltzari lotzeko aukera ematen duen eta aldi berean giltza hauek topatzen laguntzeko mekanismoa duen objektu bat sortu dugu. Bilaketa lanean gehien laguntzen duena garbi dago GPS sistema bat izango litzatekeela, baina hori beste modelo batzuetan ere topatu dezakegu.

Horregatik, pausu bat aurrera egiteko gure telefono mugikorretatik aplikazio baten bidez kontrolatu ahal izango dugun eta arazo nagusiari erantzuna emateko balio izango digun giltzatakia izango dugu. Oinarrizko GPS sistema batekin edota soinu pertsonalen bidez lokalizatzeko bozgorailu txikiekin hornitua. Hau dela eta gure produktuaren erantzukizun nagusia bezeroari erosotasuna eta segurtasuna eskaintzea da oso normalizatua dugun arazo bati erantzuna emanez. Guzti hau aipaturik argi dago gure produktuak bezeroaren bizi kalitatea hobetzen duela eta ondorioz balorea kualitatiboa dela.

